

Areatza Musik and Beer-ek kotzertua antolatu dau Kiñugaz batera

13. orrialdea

Frontoia egiteko proiektua diseinetan dabiz Lemoan

Kotxepin eta Kulturgunearen ondoan geratzen dan eleizako plazako espazioa barriztu eta jenteak erabiltea gura dau Udalak Lemoan. Esku Pilota alkarteak egindako eskakizun bateri erantzunez, lehen herrietan egoten ziran moduko frontoia egin gura dabe. Proiektuaren diseinua esleitura dago. **11. orrialdea**



Podiumera igo zan Oskar Garro bueltako lehen lasterketan


11. orrialdea

2002tik 2021 era, errumaniar jatorrikoak dira gurean errolatutako etorkin gehienak

EITBren eta TOKIKOMen Saretzen proiektuaren barruan, Arratia, Ubide eta Zeberioko migrazinoaren bilakaerea aztertu dogu BEGITUN.

Errumania da gurean errolatutako atzeritar jatorriko biztanleria handiena daukan herrialdea. Bigarrena Maroko da. Marokoar jatorriko biztanleria da gehien hazten doana. Ondoren Kolonbia eta Bolivia datoz. Hogeitaz aztertutako dira eta hasieran etorri ziranen seme-alabak, umeak ziranak orduan, hemen hazi dira.

Boliviatik etorri zan Euskal Herrira Laura Sanjines 2001ean eta 2003an Arratiara. Bere migrazino prozesua kontau deutso BEGITURI. Migrazinoa oso lotuta dago ekonomiari, jatorrian zein helmugako herrialdeetan. Atzen urteotan, lan asko prekarizau egin dira eta zaintza lanetara be heldu dala prekarizazioa dino Sanjinesek. **8. eta 9. orrialdeak**



IGORRE

Bizi Igorren 2030 programarako laguntza teknikoa esleitu da

Mundu Osasun Erakundeak 2007an jasotako Hiri Lagunkoiak programan oinarrituta, 2016tik martxan dagoan Bizi Igorre proiektuak, herria persona nagusientzat -eta ondorioz, danentzat- inguru lagunkoia izatea dauka helburu. **5. orrialdea**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

BFAk jenteari arreta presentziala emoteko bulegoa zabaldu dau

Martia hasieran zabaldu zan Igorreko bulegoa. Bertan, Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan emoten ziran zerbitzuak emoten dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren gainerako sailtakoak be bai, Ogasun eta Finantza Sailekoak barne, 150 izapide eta zerbitzu baino gehiago. Arratia-Nerbioi eskualdeko 16 herriri emoten deutso zerbitzua bulegoak. **7. orrialdea**



IGORRE

Igorre ezetu erakusketako Martin Muro egileari alkarrizketea

Martin Ortega Muro Areatzako artearen *Igorre ezetu* erakusketan dago Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan apirilaren 28ra arte. Bertan, Igorreko ondarea erakusten dabezan 36 artelan dagoz. Teknika mistoa erabili dau egileak lanok egiteko: tintea, akuarela, errotulkiak eta digitalizazioa, hain zuzen be.

Igorreko 2022 eta 2023ko egutegiak egiteko Ortega Murok egin dako, herriko ondarea eta beste leku bitxi batzuk erakusten dituen 24 ilustrazio dagoz erakusketan; beste 12ak, beren-beregi erakusketarako egindakoak dira. **12. orrialdea**

Literatura txokoa

ZENBAIT TERRORISTA

Lantzean-lantzean aspaldiko liburu bat hartu eta ikustea zelan ondu dan, zelan diran gaur-gaurkoak Markos Zapiainen (Irun, Gipuzkoa, 1963, Bermeon maisu urteokaz) umore zorrotza eta erreferentzia kultuak, aikoan nire plazeretako bat. Konpartidu gura bazeunke Filosofiara hurreratze-ko modu bizi bat, hartu *Zenbait terrorista*. Ez jatzu damutuko.

Titulutik bertatik hasita terminoak ordenetako (hain fazil darabile terrorista berbea!) eta filosofiaren bilakabideak argitzeko ahalegina danez, irakurleari diziplina eskatzen deutso arean. Baina Proust, Sartre, Foucault edo Rosseten ideen inguruko oinarri sendo barik be disfrutau dot nik, hogei urte geroago, liburu hau. Markos Zapiainek kritika

egiten deutse, aztertutako autore bakotxaren bitartez, sistema filosofiko nagusien egiturei, eta kritika horreek munduaren ikuskera barriak zabaltzen dabez. Izan be, pasau dan mendeko berrogeta hamargarren hamarkadatik aurrera mundua dudan jarri ebenen inguruko konpendioa da hau. Aurreretxirik barik irakurri behar da, aurreretxien kontra ekin eben pentsalariak dira-eta liburura bildu diranak.

Hemendik atxina datorrenaren gaineko gogoeta bikain bategaz hasten da liburu. Gure herrian al daketa sakon bat gertatu zan liburuko filosofoak puri-purian egozan bitartean. 36ko gerran galdutako estimua berreskuratzen hasi gitan. Eta, era berean, ezinbestean

aldakorra dan etorkizun barri bat lantzea tokau zan. Bada, aber-tzaletasun zaharra eta euskaldun-tasunaren idea klasikoak astindu ebezan garaiak filosofoen iturbu-rutik bertatik aztertzen ditu Markos Zapiainek.

Ideak freskatzeko ariketa ona.

Ezin dira artikulua honetara eka-rrri liburuaren detaile guztiak, bai-na esan daigun umoreak be bere pisua daukala *Zenbait terrorista* irreberente eta ironiko honetan. Laster konturatzen da irakurlea horretaz, eta behar bada bere buruari galdetuko deutso ia zer-gaitik ez deutsien inoz Filosofia holan azaldu.

Igor Estankona



Markos Zapiain

Zenbait terrorista

Txalaparta, 2003

152 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Apirilaren 3tik 9ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 10tik 16ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 17tik 23ra

Traver. Bedia. J.A. Agirreren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunean orduo

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduo. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduo.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordu

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. Tel.: 94 673 90 13. E-posta: begitu@begitu.eus. Webgunea: www.begitu.eus. Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga. Tel.: 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus. Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Tel.: 649 979 112. E-posta: beazpiri@begitu.eus. Erredakzinoa: Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. Tel.: 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus. Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. Banaketea: Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa) eta Asier Jugo (Arantzazu, Areatza eta Artea). Tiradea: 7.300 ale. Inprimategia: Bidasoa inprimatzeko zentroa. Facebook: [Begitu Aldizkaria](https://www.facebook.com/BegituEus). Twitter: [@BegituEus](https://twitter.com/BegituEus) Instagram: [@begitu.eus](https://www.instagram.com/begitu.eus)

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatze.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

iQué barbaridad, Bagdad!

Oin dala aste batzuk entzuten da aurtten "vaquillak" ipiniko dituela Dimako jaietan. Jai Batzordeko kide batzuek proposatu eben eta Udalak ekintza onartu egin dau. Hortik aurrera, horrer buruz kezkatuta gagozan herriko jentea antolatzen hasi ginan ekimena bertan behera ixteko, gure herrian animaliak erabilten dituen ikuskizunak ez doguzalako gura. Ildo honetan, gogoratu gura dogu 2015 urtetik Dimako herria Dimesten proiektuan dagoala, eta Herri Hezitzaile legez, animaliakazko arduratsua izan behar daua. Zazpi printzipio ditu oinarri, honeetako hirugarrena "aisia hezitzailea" da, eta seigarrena, "ingurune kulturala zaintzea". Animaliak herritik ibiltea herriarrak xaxatzen, bildurtzen eta jotzen dituen bitartean ez dogu uste

eredu ona danik gure umetxoentzako. Ze azalpen emon ahalko geunke "vaquillak" ikuskizunari buruz galdetzen badeuskue? Dibersino hutsagaitik da, eta guri gauza asko bururatzen jakuz gure herriko jaietan ondo pasetako animalien sufrimenturik barik. Euskal Herriko herri gehienek animalien sufrimenturik bako ekintzaz beteten dabe euren egitaraua. Diman, urtean zehar, ekintza zoragarriak dagoz eta herria beteten da, bai Arratiako jenteagaz, bai kanpoko jenteagaz. Ospe ona ei dabe herriko jaiek. Horregaitik eskatzen deusuegu zuen laguntzea, kejak bialduteko. Aukera bi dagoz: Dimako udaletxean bertan zure keja aurkeztu, keja orriaren bidez, edo interneten bidez Dimako Udal webgunean. Ozen entzun behar da beste aisialdi eredu bat posible dala.

DIMEKO ANIMAZALEOK ETA FEMINISTOK

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXII). Kale berbakunea sustatu guran

AURREKO ZENBAKIKO ARIKETEN ERANTZUNAK:

Hi motel! Ordua izan **dok/dona** (da) hotzak joan eta beroak etorteko!! Hazurretaraino euki **joazat/jonazat** (dodaz) sartuta hotzak eta!!

Ba oindino ibili hadi zuhur, ze klima aldaketa honegaz **etxakiguk/etxakigune** (ez dakigu) ze etorri leikegun eta.

Heuk esan **dok/dona** (dozu) egia ointxe, goizetan janzteko be gatx **jauk/jauna** (dago) asuntoa.

ERETXIA

Erakunde eta epaileen alde bikotxa: Guraso Alienazino Sindromearen (GAS) inguruko irabazi handiko negozioa

¶¶ Zientziak dinosku haur batek guraso bat baztertzeko errazoirik gertagarriena guraso horren jokabidea bera dala".

Zer egin babestu behar zaituan sistemeak bizkarra emoten deusunean?

Askotan egiten da berba biktimei buruz, baina oso gitxitan biktimarioei buruz; batez be, biktimarioa lagundu behar zaituan erakundea edo epailea danean.

Ez gara kasu isolatuak, asko gara, hainbeste non, Nazinoarteko andren kontrako tratatu txarren kontrako errelatorea dan Reem Alsalemek dinoan patroir estruktrala dala epaitegietan eta erakundeetan dagoana ama batek tratatu txarrak edo abusu sexualak salatzen dituanen aitaren kontra, hau da, joera diskriminatzailea dagoala andrea kriminalizauz, eta hori torturatzat hartu behar dogula.

Gloria Poyatos epaileak dinoan legez: "Genero-indarkeria instituzionala eraso modu gaiztoenetako bat da, indarkeria erabilten dauanak zuzenbide estaduaren babes legitimoaren pean egiten daualako". Hortaz, maltratadorea baino biktimario handiagoak dira erakundeak eta epaitegiak; izan be, horreek maltratadoreei alfonbra gorria ipiniko ez baleutsee, ezinezkoa litzateke epaitegietan eta erakundeetan egiten daben moduan gure seme-alabak tratatu txarregaitik eta sexu abusuengaitik babesten doguzan amok torturatzeta.

Zelan torturatzen gaitue gure umeen kontrako indarkeria motaren bat salatzen dogun amok? GAS faltsuaren bidez (guraso alie-



IRUNE COSTUMERO
Euskera teknikaria

Rhodes Legeak, Guraso Alienazino sindrome faltsuaren erabilerea galarazo egin ebala.

Ha-ta guzti be, erakundeetan eta epaitegietan leporatzen jarraitzen dabe; hortaz, indarkeria instituzionala, arrankamentuak iceberga izanik.

Eta hor hasten da negozioa, topaguneen bitartez. Negozio hori autonomia erkidego guztietan gertatzen da, baina baita mundu osoan be. Enpresa pribaduek umeak kontroletan, monopolizetan eta pribatizetan dabez. Lapurtutako umeen jarraipena egiten dabe, baina gure arpegian, eze-lango lotsa barik.

Gurean, Bizigarri enpresek Bizkaian edo Babesten enpresek Araban eta Gipuzkoan zigorbakotasunaz jarduten dabe.

Eusko Jaurilaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak ahalbidetzen dau enpresa pribadu horreek Europako diru publikoa erabiltea eta saila horrek berak sinatu dauan umeen babesgabetasuna neurtzeko BALORA izeneko tresna aprobetxauta, legez galarazota dagoan Gurasoen Alienazino Sindrome faltsua sartuta dago.

Eta bete beharrekoa danez, eta edozein ospitaletatik tratatu txarren protokoloa zabaldu ondoren aktibetan danez, ama babesle guztiok eta gure seme-alabak sagutxoak legez erortzen gara euren tranpan.

Amaitzeko, esan gura neuke konplot hau, GAS izeneko irabazi handiko negozio hau, hainbeste narruzko eserleku eta hainbeste tripa esker oneko elikatzen dituana, barrutik eta nazinoarteko laguntza eta indarragaz baino ez dala dinamitatzen.

Garrantzitsuena da gure umeei entzutea, eta ez gitxiestea edo kriminalizetea gure testigantzea euren amak izateagaitik, eta, batez be, ez begiratzea beste aldera, beste alde batera begiratu ezker, konplize bihurtzen zaralako.

Nire aldetik, *maitie*, ez naz geldituko zu etxera bueltau arte, ez gara geldituko ume guztiek euren amakaz etxera itzultzeko eskubidea lortu arte.

Eskubideak dituelako!

nazinoaren sindrome faltsuaren bidez).

Aspalditik sindrome hori errefusatua izan arren, guretzat eta gure seme-alabentzat garrantzitsuena dana da 2021eko bagilaren 4ko Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurka Osorik Babesteko Lege Organikoak, edo ezagunagoa den



LUMATUTEN



MAITE ARTABE
URKIRI

Zuriketa morea-
purplewashing

Konturatuta nengoan batzuetan andren eta feminismoaren kontuak zenbait lekutan ikusteak min egiten eustala eta ezin neban ulertu, ni aspalditik izan nazalako gaia lehenengo lerroetara ekartearen aldekoa.

Baina zeozergaitik min egiten eustan. Ondo dakigu androk zer dan sentipen hori, ezinegonaz sortu zerbaistek, mina be sentidu, baina errazionalki ezin detektau zergaitik eta zeozelan errudun be sentidu hain sentibera izatearren. Zornotzak lagun batek be komentau eustan gauza bera eta tangentetik atera nintxakon orduan esanez, igual irabazten gengozalakoaren seinale izango zala, edozein lekutan beharrezkoak ginala, beharrezko zala feminismoa edozein esparrutara eroatea... seguru asko positibotasunerako joera orokorrak galdu ninduan.

Eta hara non topau neban

errazoa: *Berdintasuna eta Feminismoa* hiztegitik ateratako aukeraketa bat irakurten nengoala haxe aurkitu neban: Zuriketa morea (*purplewashing*): Gizarte mobimentu baten aldarriak babesteko itxurakeria. Feminismoari bajagoko zuriketa morea erabiltzen da; ekologismoaren arlokoa bada zuriketa berdea, eta abar. Era berean "kanpomorea" "kanpoberdea" eta gisakoak be erabili daitezke.

Ingelesetik zuzenean itzulitako Zuriketa moreak ez eustan hainbesteko eragina egin, baina guztiz argigarri suertau jatan kanpomorea berbea. Kanpoeder hainbestetan entzunda segiduan jaubetu nintzan esangurearen mamiaz.

Eta, jakina, horregaitik egiten eustan min, itxurakeria besterik ez dalako zenbaitetan gure aldarriak aitatzea, eta injustua be badalako hainbeste burrukaren ostean arinkeriaz eta androk manipuletako erabiltea; zer esanik ez feminismoaren aldarriak, gure gorputzak, ahalduntzea... konsumismoa sustatzeko bide diranean.

Azken horrek amorratu arazoten nau gehien, enpoderatze sozialerako sortutako kontzeptu eta terminoak kremak saltzeako iragarkietan, erropa denda kateetako kamisetetan gure sloganak, yogako eskolan *Autoconocimiento femenino* ikastaroa... enfin.

Oin behintzat badakit zelan deitu halakoei: Kanpomoreak halakoak!

Eta ez da sentiberegia nazala, ez; itxurakeria eta manipulazioaren kontra nagoalako da.

ZERTZEAN



IRATI ASTONDOA

Gaia jarrita: "Kukuak noz kantauko etxoten"

1

Azken urteko fakturak eta erosketen prezioa gasolinaren gorakada ta Euribor inflazioa Gerra, pandemia ta iruzurra estatu negozioa zelan ez jaku ba etorriko gaur egun depresioa.

3

Ez dakit zein dan bide onena baia oingoa behintzet ez gizarte honek behar dauena arnasa apur bat nekez aldaketa bat ez bajatorku gauzak ez dekoguz errez lehen ondo bizi ginela baina laster gehienok negarrez.

2

Soldata duin bategaz ia ezin geinke bizi lasai hile amaiera heldu orduen buruko minek datoz ai matematikak egiten hasi zenbaki gorriek nonahi eta askotan bakarrik aurre egiteko ez gara gai.

4

Eskerrak oindo naturak bere bidean jokatzen doskun loterieri etxoten bagauz gureak egin dau txis pum! onena dogu foltsan dirue sartu ta lurrean itxun ta adi adi egun honeitan kukue kantetan entzun.

BEGI TXINDORRA

Zugatzek kimu barriak ditue, *negua joan da-ta**.

Ez da albistea. Urtero gertatzen da eta badakigu gertatuko dana, baita noz gertatuko dan be gitxi-gorabehera: *Elurrak joan direnean nire mendien artean*.

Baina udabarriak harritu egiten gaitu beti. Eta poztu, *poztasun handi batek besarkatzen gaitu*.

Akaso, eguraldi epela dalako, egunak luzeagoak eta argitasunak lasaitu egiten gaitualako... *Izpi lasaigarri bat ez da faltetan*.

Negua joan da ta, negua joan da ta.

*Negua joan da ta
Zea Mays





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa
hagin klinika

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidakoa
T. 94 631 50 39
Idazgaitia Zentakia: 900
R.P.S. 31/06

ZEANURI

Eider Ajuriagerra Arana, oingo alkatea, izango da EAJ-PNVren alkategaia maiatzeko hauteskundeetan



Eider Ajuriagerra.

Jeltzaileen arabera, Eider Ajuriagerraren ezaugarriak, "lan egiteko gaitasuna, ilusinoa, gaztetasuna, alkarrizketarako gaitasuna eta Zeanuriko herritarren beharrianen ezagutza sakona" dira.

Erredakzinoa

Hautagaiak, herriko alderdikideen konfiantzea eskertu eta "azken lau urteotan egindako lanagaz pozik eta aurrera egiten jarraitzeko gogotsu" dagoala dino, "zeanuriztarren bizi kalidadea hobetuz jarraitzeko eta behar doguzan zerbitzu guztiak izateko, bai eta herri hau izan daiten biziteko lekurik onena".

Ajuriagerraren arabera, oingo legealdian proiektuak garatuteko orduan, arlo guztiak eta edade guztiak izan ditue kontuan. "Era berean landu doguz kirola, kultura, herriko bideak, auzoak, jasangarritasuna... energia barriztagarrien aldeko apustua egin da. Alkarteak alkarlanean jardun izan dogu: abeltzaintza

arlokoakaz, kirola eta kultura arlokoakaz, andren taldeakaz, adinekoakaz... Kontuan hartu dogu turismoaren esparrua, bisitetan gaituenontzako gune bat eta autokarabanetarako lekua ipiniz. Laguntza ekonomikoak bideratu dira zeanuriztar gazteenentzat, gazteenentzat eta gure nagusientzat. Azken finean, herritar guztientzat", azaldu dau jeltzaileen hautagaiak.

Eider Ajuriagerra Arana
Eider Ajuriagerra Aranak (Zeanuri, 1973), Zeanuri zale amorratu moduan definiduten dau bere burua, eta Zeanuri ez leukela ezegaitik aldatuko dino, bere "txoko guztiak parebakoak diralako". Abestea eta mendian ibiltzea be gustetan jako asko.

IGORRE

Maraka Koop. Elk. Txikiak jarraituko dau Igorre Bizi proiekturako zerbitzua emoten

Mundu Osasun Erakundeak 2007an jasotako Hiri Lagunkoiak programan oinarrituta, 2016tik martxan dagoan Bizi Igorre proiektuak, herria persona nagusientzat -eta, ondorioz, danentzat- inguru lagunkoia izatea dauka helburu. Oin, honen jarraipena izango dan Bizi Igorren 2030 programearen garapenerako laguntza tekniko esleitu dau Udalak.

Erredakzinoa

Oin arteko moduan Maraka Koop. Elk. Txikiak emongo dau zerbitzua aurrerantzean be. Bizi Igorren 2030 programeagaz, herria bizi-garri, jasangarri eta parte-hartzaile baten aldeko herritarren beharrian eta nahiak ezetu, eta horren araberrako proiektuak egiteko parte-hartze prozesua planifiketea, gauzatzea eta ebaluatzea izango da Marakaren lana. Baita proiektua osotuko daben taldeak dinamizetea be. "Galdera baten inguruan garatuko dogu proiektuaren hurrengo fase hau: Zelango Igorre gura dogu 2030ean? Udal barruan parte-hartzea estrukturala egiteko asmoagaz, prozesu herritarrean azaldutako gai, idea eta erronkak udalaren egunerokoan zelan txertatu hausnartuko da" azaldu dau Illart Gumuzio Igorreko alkateak, prensa-ohar baten.

Igorre Biziren ibilbidea
Arnas luzekoa dala proiektua dinoe Udaletik eta 2016tik hona lanketa sakona egin dala. Lehenengotik, lagunkoitasun diagnostikoa egin zan edadekoakaz, eta horren ondorioz, ekintza plana zehaztu zan. Hortik sortu ziran 55 urtetik gorako personeren talde eragilea eta Bizi Batzordea.

Edadekoentzako herri lagunkoia izateko Igorreko proiektua, EAE mailan aurrendarienetakoa izan zan, eta 2018an, nazioarteko mailan aurkeztu zan Bizi Igorre, Toronton (Kanada) egindako



Zahartzearen gaineko XIV. Mundu Biltzarrean. Han, bideo batez lagunduta, Bizi Igorre proiektuaren barri emon eban Itsaso Bengoetxeak Ryarson Unibersidadean. Edadeko jentearentzat herri txikiak daukiezan bentajetan oinarritu zan bere berbaldia. Alde batetik, herri txikietan, partaideen arteko ezagutza eta konfiantzea; eta bestetik, behetik gorako proiektuak eta erakundeakazko hartu-emon zuzena eta alkarlana errazten dirala esanez. Nagusien eta beste edadeetako jentearen arteko alkarlana be argi geratu zan Toronton egindako aurkezpenean.

2019an, ekintza plana bukatuta, ondorengo helburuak zehaztu ziran: Igorreko edadekoen par-

taidetzea aktibo mantenidutea, ekintza planaren eta prozesuaren jarraipena egitea, herriko eragileak hartu-emonak landutea eta talde eragilean integratzea eta Hiri Lagunkoiak sarean parte hartu eta edukiak alkarbanatzea. Lanketa honen emaitzak pandemia sasoiko biltzeako debekuek eten ebazan, baina, zeozelango jarraipena emoteko, Bizi Batzordeko kideek, bilera birtualak egin ebazan. Behin ohiko dinamiketara bueltauta, "proiektuari dimensino barri bat emoteko beharra" ikusi ebela parte hartzaile guztiek dino alkateak prensa-oharrean, eta edadeko personez harago, beste kolektibo batzuek alkarlanean jarduteko konpromisoa hartu zala.

Kili-Kili
Arropa eta Puntuakultura
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaja)
Tel.: 94 673 43 81

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Blitzko dozen jakitza

- Salmentan zein alokairuan
- Lurrak (erakileta, landak, basoak...)
- EtxeBIZ/IZOR (puzak, bosnak, etxak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Pabilioiak...
- Balnearioak

Bidera dozen proiektuak

- Irakin berriak erakileko instalazioak
- AKTIBOAK-proiektuak
- Borne diseinua
- CEE eta ITE-ak
- Hirigintza ahoikualarizta
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Lehendakari Agirre 25, 1. solairua - Igorre
Teléfono: 94 621 31 89 - 425 19 25 31
94 673 43 81 - 94 673 43 81
www.arratia.es

Olaetxe
OPTICA SINIATUA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsinoak
- Lentillen adaptazinoak
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaja)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA
Gorbeialde

Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

begitu

beus

ARTEA

Auzotarren preminetara egokitu da Bildosolako autobus geralekua



Erredakzinoa

Urteak ziran autobus erabiltzailerek markesinea eskatuten ebela Bildosolako autobus geralekuan. Aurtengo martian amaitu dira obrak, segurtasuna eta garraio publikoaren erabiltzaileei zerbitzua hobetuteko. Geralekua lekuz aldatu da, markesina bat ipini

dabe eta zabor eukiontzietarako be plataformea egin dabe. Guztira 45.000 euroko kostua izan dau lanak; Udalak 30.000 euro ipini ditu eta Aldundiak beste 15.000 euro. Aurrerago, beste aldeko geralekua parean ipini eta alde batetik bestera segurtasunez kurutzatzeko semaforoa ipini gura dau Udalak.

Herri barruan 30 km orduko abiadura

Arteako herri barruko errepideetan, kanposantutik Areatzara eta Elexabeititik plazara, gehienezko abiadura 30 km ordukoa da, herri barruan oinez eta bizikletaz seguruago ibilteko. "Ez daukagu modurik bizikletentzako ibilbide propioa eukiteko, baina trafikoa ez da handia herri barruan eta biak konpatibilizatu daitezke gehienezko 30 km orduko abiadurareagaz" azaldu deutso BEGURI Gorka Beitia zinegotziak.

Bizikletea aparketako lekuak ipini dira plazan, frontoian, medikuetean, eskolan eta Gaztegunean (Mataderoan) eta umeak eskolara bizikletan joaten animetako kanpaina bat egingo dau Udalak aurrerago.

LEMOA

Lemoako Udalak herriko gazteen emanzipazinoari buruzko azterketea eta diagnostikoa egingo dau

Erredakzinoa

Lehen pausu moduan, hile amaiera aldera inkesta bat bideratuko jakie herriko gazteei, eta inkesta horren emaitzak txostena egingo dau Udalak. Bertan, herriko gazteen kezak, beharrak eta nahiak identifikatu eta zehaztuko dira. Udatik bueltan saio parte-hartzaileak egingo dira adin tarte eta talde desbardinakaz. Asmoa da espazio informalak sortzea, gazteak eroso sentidu daitezen eta proiektua naturaltasunez landuteko. Aurtengo Elkartruke proiektuak be emanzipazinoa hartuko dau gaitzat.

Ume eta gazteentzako aisialdi aukerak udabarrian

Udabarriko oporralldirako hainbat ekintza antolatu dauz Udalak, Ludotekan, Gaztelekuan edo Kiroldegian. Ludotekeak, HH3 eta LH2 arteko umeentzako, skate parkera urtekerea, Urdaibaitik itsasontzian buelteak eta Lemoako auzoak ezetuteko urtekerea prestatu ditu apirilaren 3, 4 eta 5erako. LH3 eta LH6 arteko umeek barriz, apirilaren 11tik 14ra, Igorrera, Dimara eta Areatzara txangoak eta Sopuertabenturara urtekerea izango dabe. Edade tarte honetakoentzako, apirilaren 3tik 5era,

Kiroldegian, "Konkis txikia", telebistako programa arrakastatsuan murgilduta egoteko aukerea izango dabe. Atzenik, 12 eta 16 urte bitartekoek, apirilaren 10etik 13ra, Zumaia-Zarautz kostako ibilbideaz, sexualidade tailerraz, tirolinaz Areatzako Gaztetxeoakaz batera eta Masterchef taldekako lehiaketaz gozatzeko aukerea izango dabe Gaztelekuan.



DIMA

Arabako Probintzia Auzitegiak Xabier Sanchezen epaia irmo egiten dauan autoa argitaratu eban martiaren 16an

Erredakzinoa

Espainiako Auzitegi Gorenak martiaren 15ean jakinarazo ebazan De Miguel auziko zigorrak, eta Arabako Probintzia Auzitegiak hurrengo egunean argitaratu eban epaia irmo egiten dauan autoa. Autoak hamar eguneko epea ezarri eutsen espetxean aurkezteko, Dimako Xabier Sanchez Robleseri, Jauriratzako Kultura Saileko Gazte eta Ekintza Komunitariorako zuzendari izandakoari, eta EAJren Araba Buru Batzarreko kide izandako Alfredo de Migueleri, Koldo Otxandianori eta Aitor Telleriari.

Arabako Probintzia Auzitegiak 2019an ebatzi eban epaitutako 26 lagunetatik 15 zigortzea; tar-



Argazkia: Arabako Alea.

tean, Dimakoa. Helegiteen ostean, Auzitegi Gorenak zigor handienak berretsi ebazan urtailean eta bost lagunerri ezarri eutsezan espetxe zigorrak. Sanchezeri, zazpi urteko zigorra ezarri eutsien prebrikazino, bidebako erabilte, agiri faltsutze, etenbako eraginen trafikoa eta legez kanpo alkartzeko delituakaitik.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Osasun neurologikoaren gaineko tailerrean izena emoteko epea zabalik dago

Erredakzinoa

Xavier Uriarte errehabilitazino, osasun publiko eta medikuntza naturistan mediku espezialistek emongo dau berbaldi-tailerra apirilaren 15ean, 10:00etatik 14:00etara, Arantzazuko Kultur Gunean. Tailerrak 20 euroko prezioa dauka eta izena askebiziarrien@gmail.com helbide elektronikoan emon behar da aldeaz aurretik. AskeBizi Arratien taldeak antolatutako berbaldi-tailer honetan, osasun neurologiko eta mentala ikuspegi ekologikotik, gaixotasun

neurologikoak eta txertoak zer diran eta euren konposizino eta dakarrezan konplikazinoak landuko dira.

Xavier Uriarte

Xavier Uriarte Llorente Gironako mediku naturistea, txertoen aurrean babes naturalaren aldekoa da eta bost liburu ditu kalean, *Alimentación, neurología y ciencias de la conducta*, *El alimento como medicamento*, *Inmunidad o vacunas*, *Remedios populares de uso tradicional en España* eta *Los peligros de la vacunas*.

Gure ikastetxeak

Luskalduna

kalidadezkoa

herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza

Lehen Hezwuntza

Dorrigorrezko Dagarren Hezwuntza

Datxilergoan

Hezwuntza Zinloan

2 urtetik 13ra

ZEANURI

Nahia Urrutxua da EH Bilduren hautagaia Zeanuriko alkatetzarako

Nahia Urrutxua Arriortua, zinegotzia da egun eta ilusinoz eta arduraz hartu dauala hainbat herritarrek hilabeteetako hautaketa prozesuaren ondoren eskaini deutsien konfiantzea dinoe Zeanuriko EH Bildukoek.



Erredakzinoa

Herritarrak udalera hurbildu beharrean, udala herritarrengana hurreratzeko sasoia dala uste dau Urrutxuak.

EH Bilduren hautagaiak, herritarrak erdigunean jartzeko garaia dala eta batez be umeak, gazteak eta 3. adinekoak hartu gura dituela kontuan dino. "Batetik, umeek aisialdirako espazio barri eta egokiak behar ditue gure herrian, eskoleagaz be hartu-emona indartu behar dogu eta jantoki eredua aldatu guran dabizen gurasoei lagunduteko Udalak bitarteko guztiak ipini behar ditu. Bestetik, gazteak heritik alde egiten jabilkuz, udaletik etxebizitza hutsen errola egin eta jaube eta maizterren arteko bitartekaritza zerbitzua ahalbideratu behar dogu. Atzenik, Zeanuriko EH Bildutik 3. adinekoentzako eguneko zentro baten beharizana urte luzez aitatu dogu, zentro hori martxan ipinteko bideragarritasun plana egin behar dogu Udaletik" dino EH Bildukoak.

Oindino guztiz amaitu barik dagoan saneamentu planari bultzadea emon gura deutso EH Bil-

duk eta, auzotarren ondoizaterako auzuneetan inbersinoak beharrezkoak dirala uste dau.

"Badakigu erronka handiak ipini deusaguzala geure buruari, baina Zeanurik merezidu dau ahalegin hori. Gure asmoa udaletik garden-tasunez eta zintzotasunez jokatzeta da, herritar guztiak kontuan hartuz. Horretarako konfiantza osoa daukat udal hauteskundeetarako osotu dugun lantaldean. Gure asmoak aurrera aterateko, adin tarte guztietako zeanuriztarrez inguratu naz, Udaleko jardunean esperientzia handia daukienak horreetako asko, ilusinoz eta gogo biziz lagunduteko prest agertu diranak beste asko. Zeanuriko udalean aldaketa posible dala sinisten dogu, posible eta ezinbestekoa".

Alkategaiagaz batera, hauteskundeetara aurkeztuko dauan zerrendea be emon dabe jakitera: 1. Nahia Urrutxua, 2. Arkaitz Estiballes, 3. Maider Gandarias, 4. Edurne Landajo, 5. Jokin Larrakoetxea, 6. Amaia Sagarna, 7. Jabi Campo, 8. Ziortza Etxebarria, 9. Mikel Arrien, 10. Leire Etxebarria, 11. Teo Arana, 12. Mertxe Ortuzar, 13. Ioritz Martin, 14. Bego Rojo, 15. Jokin Berrio eta 16. Zedari Jauregi.

ZEANURI

Merkatu txikia hilaren 16an

Erredakzinoa

Udabarrian gagoz eta hasi da barriro baseritarren azoka garaia. Holan, apirilaren 16an, domekea, egingo da Zeanuriko Merkatu txikia plazako frontoian 10:00etatik aurrera. Gorbeia Turismok, Gorbeialde Landa Garapenerako alkatetarako, Zeanuriko Udalak eta Bizkaiko Foru

Aldundiak antolatutako azokea da. Baserriko elikagai fresko zein landuak egongo dira salgai: gaztaia, pastelak, ogia, txakolina, txorizoak eta barazkiak. Bisitariak, erosketa bakotxagaz bertoko produktu loteen zozketan parte-hartzeako aukerea be izango dabe. 13:00etan, The Half Nelson taldearen kontzertua egongo da.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Bizkaiko Foru Aldundiak jenteari eskualdean arreta presentziala emoteko bulegoa zabaldu dau Igorren

Martiaren 6an zabaldu zan Igorreko Agirre Lehendakariaren kaleko bulegoa. Bertan, Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan emoten ziran zerbitzuak emoten dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren gainerako sailen, Ogasun eta Finantza Saila barne, 150 izapide eta zerbitzu baino gehiagogaz batera.

Erredakzinoa

Bulegoak Arratia-Nerbioi eskualdeko 16 herri eta 24.000 persona baino gehiagori emoten deutso zerbitzua. Holan, herritarrek Aldundiagaz egiten dituen tramiteak egiteko, arreta presentziala be izango dabe eskualdean bertan.

Martiaren 16an, Illart Gumuzio Igorreko alkatea, Andere Ortuzar Arratiako Udalaren Mankomunitateko presidentea, Javier Bikandi Digitalizazioaren eta Herritarrenganako Laguntzaren zuzendari nagusia eta Elixabete Etxanobe Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako diputadua hurreratu ziran bulegora. "Helburua da herritarrak aukeratu ahal izatea BFAgaz tramiteak zelan egin gura dauzan: telefono bidez, web orrialde bidez edo arreta presentziala. Guretzako arreta presentziala emotea oso garrantzitsua da. Herritarrak hurretik gura dituan tramiteak egin ahal izango dauz BFAko edozein sailagaz" esan eban Etxanobek Igorren.

Bulegoan, 13 personak egiten dabe lan eta kopuru hori handitu egingo da Errenta eta Azalaren Ai-

torpenaren kanpainetan. Bulegoa martxan ipinteko, BFAk 434.722 euroko inbersinoa egin dau.

Gertu eskualdeetako bulego sarea

Gertu izenpean, BFA, herritarrei arreta emoteko bulego sare bat osotuten dabil. Igorrekoa seigarrena izan da. Aurrekoak, Durango, Bermeo, Gernika, Balmaseda eta Mungian dagoz. Markinan be beste bulego bat zabaltzeko asmoa adierazo eban BFAtik.

Bulego honeek aurrez aurreko

arreta integrala emoten dabe; hau da, kudeaketa guztiak egin ahal dira bertan. Holan, lehen erabilitako eskema alde batera ixten da, zerbitzu edo sail jakin batzuen arabera zatituta egoana. Lehen ENBn (Eskualdeko Nekazaritza Bulegoa) egiten ziran zerga kudeaketez eta nekazaritzako izapideez gainera, Igorreko bulegoak 150 zerbitzu baino gehiago eskaintzen ditu.

Bulegoaren ordutegia, 08:30etik 14:00etara da, astelehenetik barikura.



AREATZA

Areatzakako argiteria osoa led sistemara aldatu da



atzenengo fasea 92.580,72 eurotan. Proiektuaren %64 Bizkaiko

Foru Aldundiaren dirulaguntzagaz ordainduko da.

SARETZEN. DEMOGRAFIAREN BILAKAAREA (I)

Errumania, Maroko, Kolonbia eta Bolívia dira atzerrik etorritakoen jatorri nagusiak

Saretzeneko aurreko kolpean ikusi genduan, Arratiako biztanleria atzen hoge urteotan, 2002tik 2021era, %14,3 hazi dala. Oin hoge urte, gure eskualdeko gizartea, Hego Euskal Herriko gizartea baino zaharragoa zan, baina hoge urte honeetan, Arratian edadeko jentearen pisua ehunekoetan hazi arren (%0,8), Hego Euskal Herriko gizartea zaharragoa da oin, Arratiakoa baino. Demografiaren bilakaera horretan, duda barik, personen mobimentuak eragin handia izan dabe eta Saretzeneko bigarren kolpe honetan, Arratia, Ubide eta Zeberiora etorritako jentearen jatorria eta zehaztasunak aztertuko doguz.

Erredakzinoa/Saretzen

Arratia, Ubide eta Zeberion atzerrik jatorriko erroldatuak 291 ziran 2002an, eta, 1.545, 2021ean. Hazkundera handia izan arren, ez da denpora guztian bardina izan, momentuko egoera ekonomikoagaz loturea izan dau-ta. Holan, inflexino puntu bat topau daiteke 2011n, (atzerrik jatorriko erroldatutako 1.133 biztanle egozan gure eremuan), ze ordu-rarte gorantza egin baeban kopuruak, orduan eta 2014ra arte (1.052), apur bat jeitsiko zan, eta hortik aurrera, barriro be gora egin dau. Bilakaera hau, Euskal Herriko ekonomiagaz lotuta dago; izan be, ekonomia krisian dagoan momentuetan, atzerrik gitxiago etorten dira gurera lanera eta sasoi haretan krisia bizi izan zan, batez be industria sektorean.

Baina migrazinoa ez da momentu bat edo besteko kontua, egiturazko errealidade bat baino. Barria be ez da. Aldatzen diranak dira migratzaileen jatorria eta helmuga. Xabier Aierdi soziologo zebertioztarraren berbetan, "bizitzan dagoan fenomenorik arruntena" da migrazinoa; izan be, migrazinoa gogorra bada be, migratzaileen helburua seme-alabek bizimodu hobea izatea da; hau da, edozein gurasok gura dauana.

Epe luzea aztertuko da hemen, 2002tik 2021era, eta lehenengo urte hareetan Arratia, Ubide eta Zeberiora etorritakoen seme-alaba batzuk, migratzaileen bigarren belaunaldia, hemen hazi dira eta bertokoak dira. Etorri barriak barriz, egoera latza bizi dabe askotan: lanik eza edo prekarizazinoa, etxea alokatzeko zailtasunei eta beste arazo askori aurre eginez.

Errumania, Maroko, Kolonbia eta Bolívia jatorri jentetsuenak

Leku baten asetzen ez diran preminak eta lanak egitera etorten

dira migratzaileak; esate bate-rako, zaintza lanak edo eraikuntzan lan egitera. Eta lanak sexua-ren arabera bananduta dagozan gizarte baten, sexuari eta etorki-nen jatorriari lotuta dago; hau da, errumaniar gizonezko asko etorri ziran Arratiara eraikuntzan edota basoetan behar egitera; zaintza lanak egitera barriz, Latinoame-rikako andra asko etorten dira. Ha-ta guzti be, urteak aurrera joan eta jente kopurua handitu ahala, lanak dibersifiketan joan dira, eta ostalaritzan, komertzioan eta kualifikazino handiagoko beste sektoreetan be egiten dabe behar atzerrik jatorriko biztanleek.

Gure eskualdean, Errumaniatik etorritakoak dira kopuru absolu-tuetan gehienak, 295; baina ez dira hazkunde handiena izan da-benak (258); Marokoar jatorrikoak dira hazkunde absolutu handiena daukienak (262). Errumaniar jato-rrikoek gorabeherak euki ditue gu-rean. Hasikera hazkunde handia izan eben eta gorena jo 2010ean: 390 lagun egozan erroldatuta Arra-tia, Ubide eta Zeberion orduan. Az-tertuten gabizan epe osoan jatorri horretakoek gurean ugarienak izat-en jarraitu arren, kopuruak behera egin dau eta gaur egun 295 dira gurean erroldatutako errumaniar jatorrikoak.

Errumania da Hego Euskal Herrian atzerrik jatorriko erroldatutako persona gehien dituan bigarren herrialdea, Marokoren atzetik; gurean, barriz, 2021ean alderantziz zan. Aldi baterako lanetan ibili dira eraikuntzearen, nekazaritzearen edo industriaren sektorean errumaniar jatorrikoak, baina beste sektore batzuetan be sartu dira eta, besteak beste, ikerkun-tza, teknologia edo kultu-ra sektoreetako lanetan be badi-hardue, egun.

Marokotik etorritakoak (284) dira kopuru aldetik bigarrenak gure eskualdean eta hazkunde


handiena (262) izan dabenak. Hasikeratik ia etenbarik hazten joan ziran arren, 2018tik aurrera izan dabe hazkunderik handiena; hau da, Marokoar jatorriko erroldatutako biztanleria da gehien hazten doana. Euskal Herrian, jentetsuena da. Migrazino hau azalduko leukiezan faktoreak, besteak beste, Marokon aukera ekonomiko urriak eta ezeگونkorkasun politikoa izan daitekez, bai-ta geografikoki urrun ez egotea be. Biztanleria honek lotura izan dau arrantza eta nekazaritzeagaz batez be, baina atzen urteotan, merkataritza, ostalaritza edo garbiketa lango sektoreetan be egiten dabe behar askok.

Hego Euskal Herrian lege, gu-rean be Kolonbia da atzerrik jato-rriko erroldatutako persona (126) gehien dituen hirugarren herrial-dea. Hurretik joako Bolívia (121). Kolonbiako biztanleria hazten joan da hoge urteotan, 2014tik 2018ra izan ezik, urte horreetan egonkor egon zan-eta erroldatuen kopuruari jagokonean.

Bitxia da Boliviatik etorritakoen bilakaerea. Lehenengo urteetan, errumaniarren atzean, Boliviarr jatorrikoak zan bigarren jentetsue-na. Izan be, Boliviako kopurua asko hazi zan lehenengo urtee-tan eta 2007an, jo eban gorena 169 lagunegaz. Gero apurka-apurka behera egin dau eta oin laugarren dago.

Arratia, Ubide eta Zeberiora etorritakoen seme-alaba batzuk, migratzaileen bigarren belaunaldia, hemen hazi dira eta bertokoak dira

Migrazinoen eboluzinoa jatorriaren arabera, Arratia, Ubide eta Zeberion 2002-2021



Iturria: INE. Egilea: Saretzen.

Metodologia

Grafiko honek egiteko, Tokikomek eta ETBk, Espainiako Estatistika Institutuak argitaratutako (INE) udal-erroldetako buruzko datu demografikoak bildu, prozesau eta aztertu ditue. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako datu guztiak deskargau dira, eskualdeka eta udalerriak bananduta, 2002tik 2021era; azken urte hori erakundeek 2022ko urtailaren 1ean argitaratutako erroldetako buruzko datuei jagokiena izan da.

Immigrantearen jatorria zehazteko, INEk persona horreen jaioterriak jasoten ditu, herrialde bakoitzeko komunitate handietan multzokatuta. Ha-ta guzti be, kasu batzuetan ezin izan da identifikau jaiotzaren leku zehatza, eta, beraz, jatorrizko kontinenteagaz batera katalogau dira "Besteak" atala zehaztuta.

Datuak antolatu ondoren, migrazinoaren joera eta bilakaerak identifiketako aztertu dira, bai nazino mailan, bai leku mailan. Prozesu horretan, hainbat bistaritze egin dira balizko istorioak aurkitzeko. Gainera, ikuspegi osoagoa lortze aldera, alkarizketak egin dira askotariko aditu eta migrazino prozesuetako protagonistakaz. Datorren zenbakian jarraipena izango dau azterketa honek eta begitu.eus-en osotuko da informazinoa.

Laura Sanjines: "Zaintza lanak prekarizau egin dira"

Arantzazun bizi da Laura Sanjines Sanchez (Montero, Bolivia 1967). Boliviatik Bilbora etorri zan 2002an eta 2003an, Arratiara.

Erredakzinoa

2002an Latinoamerikatik migrante asko etorri ziran Hego Euskal Herrira, andrazkoak gehienak, etxeko lanak eta zaintza lanak egiteko. Euretako bat, Laura Sanjines da, Bildosolan eta Igorren bizi ostean, 2019tik Arantzazun bizi dana. Hogei urte daroaz Arratian eta oin dala 20 urte etorri ziran askok legez, immigrazino prozesu eta bizitza gogorrak izan dauz, besteak beste, etxea alokatzeko zailtasunakaitik eta lanaren prekarizazioagaitik. Ha-ta guzti be, Arratian egin dau bere bizitza eta seme-alabentzako etorkizuna. Eta modu isilean, lan sektore ostendue-nean, Arratiako ekonomiari be ekarpena egin deutso Laura Sanjinesek. Izan be, Xabier Aierdi soziologoak di-noan moduan, "migrazioak modu askotan, modu isiletan, modu ikusezinean eta modu oso material nabarmenetan ekarpen ekonomiko handia egiten dau gurean".

**Zer dala-ta ebatzi zenduan jaioterria itxi eta Euskal Herri-
ra etortea?**

Gizonaren langabeziak bultzatuta. Montero izena daukan Boliviako herri baten jaio nintzan eta han bizi izan nintzan lehenengo alabea euki arte. Alabeak urte bi eukazanean Santa Cruzera joan ginan biziten eta han egon nintzan ama, gizona eta alabeagaz. Han egin genduan etxea eta beste seme-alaba bi.

2002an etorri nintzan Bilbora. Gizona handik lau hilabetera etorri zan. Hona etortea ebatzi neban gizona lan barik geratu zalako eta ez eutsielako deitzean. Petrolio en-presa baten egiten eban lan eta en-presa asko zarratu ziran orduan. Gu ohituta gengoan asko ez eukiarren, faltan be ezer ez eukitera eta den-poreak aurrera egin ahala, egoerea gero eta baltzago ikusten genduan.

**Zuk Bolivian zertan egiten zen-
duan lan?**

Hamabi urtez egon nintzan etxe baten etxeko lanak egiten, baina egunean 3 ordu baino ez ziran. Okindegi baten ogiak bananduten be egon nintzan, alaba nagusiak zazpi hilabete izan arte, baina ama gaisorik ipini zan eta lana itxi neban ama eta alabea zaintzeako.

Urte haretan izan zan, andrak Espainiara lan bila joateko booma. Egoera txarrean gengoan eta kua-drillakoak hasi ziran esaten: "zergai-tik ez goaz Espainiara?" eta nik esan neban "neuk be joan gura dot". Ordurako 3 seme-alaba neukazan.

Lagun bi Bilbora joan ziran laster, horretarako dirua baeukielako. Ni lehenengotik saiatu nintzan Estadu Batuetarako paperak egiten, baina ez zan ondo urten. Eta gizonak lan barik segiduten ebanez, Espai-niarako paperak egiten hasi ginan. Lortu nebazanerako damututa nen-goan, baina lagunak esaten eusten, "etorri, lana dago-ta". Bilbon egozan eta eurek zortea euki eben, baina niri dana aldrebes urten jatan.

**Eurek be zaintzan egiten eben
behar?**

Bai, etxe barruko langileak ziran: lan egiten eben etxean bertan egiten eben lo, eta sasoi haretan, bakotxak 900 euro irabazten eban.

Bilbon urte bete eta erdi egon nintzan alokatutako gela baten, oso txarto, gosea eta hotza pasauz. Gero, 2003an, Bildosolara (Artea) etorri nintzan eta beste 4 hilabete egon nintzan hango etxe baten. Nik pentsetan neban Boliviako jenteak lagunduko eustala baina ez zan holan izan. Ondoren, Bildosolatik Igoerrera joan ginan eta han 3 urte egon ginan familia osoa. Baina han be ez euskuen alokairu kontraturik egin eta arazoak euki genduzan.

Nik behin eta barriro esaten neutsan jaubeari ez jatala gustetan kontratu barik egotea eta eskura pagetea ezelango ordainagiri barik. Baina berak ez eban gura ordainga-ririk egitea. Behin esan eustan bera ez zala egongo eta bere amari emo-teko dirua eta hurrengo hilean esan eustan ez neutsala pagau. Amari emon neutsala dirua esan neutsan eta berak ezetz. Errieta gogorra euki genduan eta etxetik alde egiteko esan eustan. Ez geunkala nora joan, eta euki arte ez ginala etxetik urtengo esan neutsan. Txarto geratu ginan.

Igorretik Bildosolara itzuli nintzan, lehengo baserri ondoko etxebizitza-
ra. Esan eusten alokatu gura ebela, baina etxea konpondu behar zala eta ez ebela asko eskatuko. Guk onartu genduan Igorrekoa ixtearren.

**Noz etorri ziran zure seme-
alabak?**

Ni etorri eta urte bira, Igorren gen-gozanerako hemen egozan. Txikiak 7 urte eukazan, besteak 12 eta besteak 16. Igorren, Galdakon eta Bilbon hasi ziran ikasten hurrengo hurrengo. Txikia hemen hazi zan eta 18 urte euki arte egon zan ikasten. Euskalduna da, kuadrillea dauka he-men... Bere lagunak galdetzen deus-te "Noz bueltauko da Edu?" eta nik "horretan gagoz" erantzuten deutset.

Nagusiak zaintzen egiten dozu

behar. Zein da zure egoerea?

Hasikeran, persona bat zaintzen ne-ban 08:00etatik 20:00etara, baina urte bi geroago hil egin zan eta lan barik geratu nintzan. Gero Bildoso-lan egon nintzanean be, andra bat zaintzen neban egun osoan. Oin gizon bat zaintzen dot 4 ordu egu-nean, ez daukat gehiagorik.

Zaintza lanak prekarizau egin dira, ni etorri nintzanez baina okerra-go da egungo egoerea. Kontratuak ez dira lanaldi osokoak eta hainbat diru hilean. Lanaldi erdikoa be ez dabe egin gura. Orduka baino ez. 10 edo 12 euro ordua. Eta oin dana igon danean, nork ordainduko dau 15 euro, esaterako? Inork ez.

**Zeintzuk dira zure asmoak
etorkizunerako? Boliviara itzuli
gura dozu ala hemen geratu?**

Ez dakit. Hemen alaba bi dauka-daz. Bata Santurtzin bizi da eta

gustetan jata etxera datorrenean jateko gozoak egitea, edo kanpoan bazkaldu... beragaz egon, eta nire beste alabeak egun horretan lanik ez badauka, hirurok egotea. Alaba biek bikotea daukie hemen eta lana. Nigaz bizi danak Igorren egiten dau lan, taberna baten; eta besteak, Santurtzin bizi danak, Eroskin.

Semea Bolivian dago aitagaz baina etorteko irrikitan dago. Langa-bezia handia dago Bolivian eta dana dago txarto. Kafetegia baten egon

zan lanean urte biz baina plantillea muriztu eben eta kalean geratu zan. Etorri ahal izateko lan kontratu bat eta gonbidapen gutuna behar dauz, eta bisadoak 1.000 dolar ba-lio dau, baina horretan gagoz.

Pentsauta daukaguna da gizona etortea pare bat urtez. Etxe barri bat egin dogu Bolivian eta ikusiko dogu zer egin. Nik etxea saldu gurako neuke eta Arratian geratu seme-alabakaz, baina gizonak eta alaba nagusiak ez dabe gura etxea saltzea.



Autokontsumo Fotovoltaikoa

Dirulaguntza handiak
dagoz, aprobetxatu!

**AURREKONTUA
ESKATU**

**Eguzki panelak jarri eta aurreztu
%50 zure faktura elektrikoan**

**Arratian jadanik
proiektu asko eginda!**

PROIEKTUAREN KUDEAKETA OSOA

Memoria teknikoa, osagaien instalazinoa eta legeztapena

944 567 368
www.ekoleds.com
Bedia | Bizkaia
info@ekoleds.com

ekoLEDs
INST. ELECTRICAS
600 565 079

PELOTEA

Umeentzako frontoiko jolasetako kanpusa egongo da Zeberion

Erredakzinoa

Aste Santuko oporretarako, apirilaren 11, 12, 13 eta 14rako hain zuzen be, pelota kanpusa antolatu dabe Mandoia Zeberio Pelota Kirol Klubak eta Udalak, 2016tik aurrera jaiotako umeentzat. Esku-pelotan jokatueteaz gainera, frontoiko beste jolas batzuk ikasiko ditue partaideek, sensibilizazio jolasak be egingo ditue, eskulanak egingo ditue frontoiko jolasetarako materiala egiteko eta talde lana eta psikomotrizitatea be

landuko dira besteak beste.

Igaz egin eben Ase Santuko kanpusa lehenengoz eta plaza guztiak bete ziran izena emoteko epea amaitu baino lehen. Aurten be sano ondo doala izen-emotea eta plaza gitxi batzuk baino ez dirala geratzen, azaldu deutso BEGITURI Beñat Garcia antolatzaileak. Nobedade moduan, materiala egiteko eskulanak eta sorpresatxo batzuk egongo dirala, baina aldaketa handirik ez "oin arte ondo funtzionau dauanez, ba, pozik egon diranakaz mantenidu eta hobetuten bada, askoz hobeto".



MENDIA

Gorbeia Suzien 21K lasterketarako emon daiteke izena dorsalak amaitu arte

Erredakzinoa

Gorbeia Suzien 21K lasterketea urri lehenengoaren 23an izango da, 11:00etan. Lasterketa herrikoi honek 21 kilometro eta 1.300 metroko desnibel positiboa daukaz eta izen-emotea apirilaren 3an zabalduko da, 45 euroko prezioan, gorbeiasuzien.eus webgunean. Apirilaren 3an, goizeko 10:00etan zabalduko da izen-emotea eta 200 dorsalak amaitu arte egongo da zabalik. Ordenaren arabera emongo dira dorsalok baina, herriko jentearen partaidetzea bultzatzeko, zeanuriztarrek bezperatik emon ahal izango dabe izena.

Ibilbidea

Ibilbidea igazko berbera da.

Lasterketa nagusiaren hasikera bardina dauka Arrabaraino, eta lasterketa luzearen ibilbidea Aldaminetik behera doanean, Igiriñao inguruan barriro be batzean da 21K lasterketearen ibilbideagaz. Hau da, ibilbide luzearen hasikerea eta ibilbide luzearen amaieraa egingo dabe lasterketa honetan parte hartzean daben lasterkariak.



MENDIA

Aitor Zunzunegik eta Oihana Azkorbebeitiak irabazi eben Kolazinoko lasterketa nagusia

Aitor Zunzunegi Soroenea-Amma klubekoak

02:08:24 denporan eta Oihana Azkorbebetia Urizar

Alluitz mendi taldekoak 02:32:07 denporan egin

ebezan martiaren 18an, VII. Kolazinoko Mendi

Eguneko lasterketako 24 kilometroak.

Erredakzinoa

Gizonezkoen podiuma, Imanol Larrañaga Aiaramendi Korrikalariak taldekoak eta Asier Larruzea Fernandez Azpigorri Mendi Klubekoak osotu eben; andrazkoena, Ainara Urrutia Yurrebaso Domusa Teknik Team-ekoak eta Oihana Zubillaga Blancok.

VII. Kolazino Mendi Eguna, martiaren 18an izan zan Bedian. Eguraldiak lagunduta, guztira 665 kirolarik hartu eben parte lasterketetan edo martxan. 24 km-ko Mendi lasterketea, Euskal Herriko Koparako lasterketa puntuagarria zan, eta horrek parte-hartze handia egotea ekarri eban; Euskal Herriko korrikalari onetakoak bilduz bertan.

Lasterketa nagusia, Oier Ariznabarreta durangarrak apurtu eban eta erritmo bizian heldu ziran Mandoiako tontorrera, bera eta Aitor Ajuria parez pare. Baina lasterketako ibilbideak bereak egin eta euren atzean etorren Aitor Zunzunegik bigarren partean bueltea

emon eutsan lasterketeari eta 14. kilometrotik aurrera bera jarri zan buru helmugaraino. Atzetik Imanol Larrañaga sartu zan eta aurreko urteko irabazlea Asier Larruzeak hirugarren egin eban. Aurtengoan mutilen errekorra apurtu dau Aitor Zunzunegik.

Andrazkoetan, Oihana Azkorbebeitiak lasterketearen buruan ipini zan hasikeratik eta Ainara



Ainara Urrutia, Oihana Azkorbebeitia eta Oihana Zubillaga.

PELOTEA

Emakume Master Cup Binakako Txapelketan txapeldunorde izan da Amaia Aldai

Erredakzinoa

Martiaren 27an Zarautzen jokatutako finala 22-14 galdu eben dimoztarrak eta Nora Mendizabalek, Uxue Osés eta Olatz Arrizabalagaren aurka.

Aldai eta Mendizabalek osotutako bikoteak txapelketan zehar ibilbide ezin hobea egin arren, atzenean ezin izan eben txapelik jantzi Zarautzeko finalean. Aldai eta Arrizabalagaren arteko lehia bizia da Emakume Master Cupe-

ko zirkuituan baina Arrizabalagak probatu dau, hobeto dabilela bikotea eta holan jantzi dau bere laugarren bikotekako txapela.

Final egunean, lehen tantuak kenduta, bikote urdina, Osés eta Arrizabalaga, aurretik mantenidu zan markagailuan partidua iraun bitartean. Holan, lehia 10-4ko aldeagaz hasi zan igartzen, Aldai eta Mendizabal aldea txikituten hasi ziralarik. 11-10era be ailegau ziran baina 15-12koa txapara bota eban Aldaik eta partidua barriro hasi zan

Urrutia hurrean joan bajakon be berak egin eban lasterketa osoa aurrean. Oihana Zubillaga izan zan hirugarrena. Abadinoztarrak 02:32:07 denporan egin eban ibilbidea eta holan, hirugarrenez jarraian eroan eban Kolazino Mendi Eguneko garaipena.

Eukeni Goikoetxea eta Irene Iturria 16Kn garaile

16K lasterketea azkar joan zan eta Eukeni Goikoetxeak eta Irene Iturriak irabazi eben lasterketea. Bigarren honek Kopan, Junior mailan be eroan eban garaipena. Gizonezkoen podiuma, Aritz Unamunok eta Ion Cabadak osotu eben. Andrazkoena, barriz, Ania Hernandezek eta Bego Uriarte Ibarrolak.

"Jai giro ederra egon zan Bedian egun osoan. Korrikalari, martxista eta boluntarioek egunari amaiera biribila emoteko bazkari eder bat euki eben Bediaiko frontoian. Antolakuntzeak eskerrak emon gura deutsez bertara parte hartzean, lagunduten edo ekimen hau posible egiten daben babesle eta laguntzaile guztiei, eurak barik ezingo zalako hau danau posible egin" azaldu deutsie BEGITURI antolakuntzatik.

urdinen alde egiten, 21-12ra heldu eta partidua amaituta emonda. Beste bi tantu lortu ebezan gorridunek, baina Aldaik atzena huts eginda amaitu zan txapelketea.

Amaia Aldaik BEGITURI egingako adierazpenetan hau azaldu dau: "Arrizabalaga eta Osesek joko maila ona erakutsi eben eta guk ez genduan gure mailarik onena emon, hasikera gogotsu hasi baginan be".



PELOTEA

Eleizako plazan frontoia egiteko
proiektua diseinetan dabiz Lemoan

Kotxepin Kultur Etxea eta Kulturgunearen ondoan geratzen dan eleizako plazako espazioa barriztu eta jenteak erabiltea gura dau Lemoako Udalak. Bertan, Lemoako Esku Pilota alkarteak egindako eskakizun bateri erantzunez, antxina herrietan egoten ziran moduko frontoia egin gura da.

Erredakzinoa

Proiektuaren diseinua esleitura dago eta zirriborroaren zain dagoz Udalean, aurrekontua eta egiteko prozesuaren egutegia ipinteko. "Lehen asko erabilten zan plaza hori" azaldu deutso BEGITURI Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak, "baina gaur egun ez dauka eze-lango erabilerarik, ez dago inor inoz". Horrerri zelan erabilera bat emon pentsetan egozala, eskupe-lota alkartearen eskakizuna heldu jakien udalekoei. Kiroldegia zarratuta dagoanean, frontoiak zarratuta egoten dira eta zapatu eta domeka



arrastietan ezin dira erabili, horregaitik eskupe-lota alkartearen proposamena, lehen herri guztietan egoten ziran frontoi ez profesio-nalako bat zabaldua zan. Oin, plaza, inguruan integrata dagoan frontoi bat sortu eta espazio horrerri erabilera emoteko diseinua egi-ten dabil arkitektoa. Diseinua eta aurrekontuaren arabera ikusiko da proiektua urte baten egingarria dan ala ez. Holan bada, 2024ko aurrekontuetan eu-kiko leuke isladea. "Idea da 2023an proiektua diseinatu eta danon ar-tean ebatzi zelangoa izan behar dan espazio hori" dino Elejabarrietak.

Kirol ez profesionalaren alde-ko apustu sendoa

Lemoako Udalak, apustu sendoa egin dau herritarrek modu ludikoan kirola egiteko aukerea izan dagien. Horretarako hainbat instalazino dagoz: kiroldegia, eta kiroldegi barruan, frontoiak, padel pistak, gimnasioa eta bulderra, hain zuzen be. Horreez gainera, Arlonagusia, futbolerako espazioa, eta Ibaizabal parkea daukie Lemoan. Parke horretan, skate park-a pumtrack-a, kalistenia parkea eta mantenimenturako gimnasia egiteko makina jarriarriak dagoz. Eta

makina horreek erabilten ikasteko ikastaroak antolatuteko asmoa agertu dau alkateak. Baina instalazino horreek guztiak alferrikakoak litzatekez jenteak erabili ez baleuz. "Guk ariketa fisikoari inportantzia emoten deusagu, herri osasuntsu baten bila gabizalako, eta horretarako ariketa fisikoa guztiz beharrezkotzat jotzen dogu" dino alkateak. Horregaitik eta baktzak bere kirola topau dagian, Mugiment sarean dago udalerria. Lemoan Oingabiz deitzean da eta hor herriko beste eragileek, kiroldegia, Lemoako eskoleak, Osakidetzak, Gizar-terre zerbitzuek eta Udalak hartzean dabe parte. Oingabizen, beteak beste, banan-banako konsultak egiteko zerbitzu bat dago; edadekoentzako programa berezi bat, eta urteko erronkak. Gazteen artean ariketa fisikoa era ludiko baten bultzatzen be saiatzen da Udala, udabarriko oporretarako lekuetan eta udalekuetan, berba-rako. "Guretzat tronkala da eta saia-tuten gara landuten arlo desbardi-netatik sartzean. Egia da Mugiment sare horregaz, Gizar-terre zerbitzuak, eskolea, kiroldegia, medikua eta Udala egonda, gauza txukunak eta politak ateraten dirala" ondorioztatu dau alkateak.

TXIRRINDULARITZEA

Podiumera igon da
Oskar Garro lehiaketara
itzulita bere lehenengo
lasterketan

Martia- ren 25ean, Igorreko Oskar Garrok txirrindularitza egokitutako Europako Kopako Casar de Caceresen jokaturako 46 km-ko lasterketan hirugarren egin eban.

Erredakzinoa

Hurrengo egunean, 23 km-ko erlojupeko proban, seigarren egin eban. Bizikletea itxi ez arren, AZE-

ko txirrindularia 2018tik egoan lehiaketetan parte hartu barik. Sano pozik agertu da txirrindularia, ez bakarrik podiumera igon zalako, baita lasterketan izandako

sensazinoakaitik be. "Hainbeste denpora eta gero, oso ondo sentidu nintzan. Domekan, erlojupekoan, arazo batzuk euki nebazan bizikleteagaz hasi baino lehen, eta urten nintzan arren ez jatan erlojupeko ona urten. Ha-ta guzti be, sano pozik nago Caceresen egindakoagaz eta datozen lasterketak egiteko ilusinoagaz" azaldu deutso BEGITURI Garrok. Hurrengo lasterketak, Espainiako Kopako probak izango dira, apirilaren 15 eta 16an, Molina de Seguran (Murtzia). Europako Kopeari jagokonean, Espainian jokaturako diran lasterketetan be parte hartu gura dau Igorrekoak.

Umeen Udaberrikopako lasterketa bat Igorren

Zazpi probak osotuten dabe Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak antolatuten dauan txirrindularitza eskolen errepideko proba. Lau-garrena, apirilaren 30ean, Igorren jokaturako da.

IGERIKETA

Udane Romero Mugarza
ugerlari igorreztarra Udako
Espainiako Txapelketan
egongo da

Galdakaoko Igeriketa Taldean egiten dau uger 15 urteko Udane Romero Mugarza Igorrekoak, eta lorpen handiak egin ditu honezkero.

Erredakzinoa

Martia- ren 11-12ko astegoienean Iruñean jokaturako Euskal Herriko Txapelketan, urtea lortu eban bizkar estiloko 50 metroko Junior kategorian. Aurreko astegoienean, Bizkaiko Txapelketea jokatu zan, eta handik 11 domina eroan ebazan etxera igorreztarrak, banakako eta taldekako probetan lortutakoak. Gainera, Espainiako Txapelketan parte hartzeako aukerea emoten deusagan denpora markak egin ditu. Estilo guztietan lehiatzen da Romero baina emaitza onenak krol eta bizkar estiloean lortzean ditu. "Euskal Herriko Txapelketea, bizkar estiloko 50 metroko proban irabazi neban, baina dominak baino garrantzitsuagoak dira egiten diran denporak, horreen arabera dalako Espainiako Txapelketarako sailkatuta egotea ala ez. Denpora taula bat dago eta bete behar dira horreek denporak Espainiako Txapelketan parte hartzeako". Romerok lortu dau udan Mallorcan jokaturako dan txapelketarako pasea, aurtengo helburuetako bat betez. Espainiako Txapelketako lau

probetarako sailkatu da Igorrekoak: udako txapelketako bizkar estiloko 200 metroko probarako eta krol estiloko 100 metroko probarako, eta neguko txapelketako krol estiloko 50 metroko probarako eta distantzia bereko bizkar estiloko-rako, hain zuzen be. Oin gogor entrenetan dabil eta Galdakaora joaten da egunero horretarako. "Igorreko Igeriketa taldean hasi nintzan, Igorrekoan baino ez ziran konpetizinoak egiten eta orduan joan nintzan Zornotzara eta Zornotzatik Galdakaora pasau nintzan" azaldu dau kirolariak. Espainiako udakoan marka onak lortutea dauka oin helburu.



Lehenengo proba, martia- ren 18an jokatu zan Zamudion eta AZEko Peio Legina hirugarren geratu zan eta beraz, puntuazino altuagaz hasi dau Udaberrikopa. Martia- ren 26an, Berangon, apri- laren 16an Durangon; apri- laren 30ean Igorren; maiatzaren 14an Ermuan, bagilearen 11n Karrantzan eta bagilearen 25ean, Son-

dikan izango dira beste probak. "Aurten 14 urtetik beherako umeentzat hiru challenge dagoz. Green Series, Udaberrikopa eta ziklo-krosa. Horreetako bitan, lasterketa bana jokaturako da Igorren: Udaberrikopako karrera bat eta ziklo-kroseko finala" azaldu deutso BEGITURI Leire Aurrekoetxea AZEko presidentea.

BERTSOLARITZEA

Maiatzaren 4an hasiko da Udabarria Bertsotan, Bizkaiko Txapelketarako sailkapen fasea

Udagoienean jokatu da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2023, baina aurretik Udabarria Bertsotan egingo da, txapelketarako baliagarria dan sailkapen fasea. Fase honetako lehenengo saioa, maiatzaren 4an izango da Urdulizen, eta han Illart Gumuzio Larrazabal Igorrekoea lehiatuko da. Ez da Udabarria Bertsotan txapelketan parte hartuko dauan arratiar bakarra; Igorreko Iñaki Iturriotz Zuluaga be ibiliko da-ta bertsotan, eta antolakuntzan be lanean dihardue Arratiako batzuek.

Erredakzinoa

Bizkaiko eskualde guztietako 48 bertsolarik emon dabe izena Udabarria Bertsotan sailkapen fasean parte hartzeako. Zortzi saio egingo dira, sei bertsolari-rikoak. Saio guztiak 18:30ean izango dira.

Arratiako bertsolari bik hartuko dabe parte txapelketan: Illart Gumuziok, maiatzaren 4an kantauko dau Urdulizen, eta Iñaki Iturriotzek Diman, maiatzaren 11n. Dimako saioan, Iñaki Iturriotzegaz batera, Aitor Arrutia Azkueta, Ander Sarriugarte Garcia, Iker Garitagoitia Astigarraga, Koldo Gezuraga Seijido eta Peio Lago Iturriaga saiatuko dira hurrengo fasera sailkatzen.

Sarrerak aprilean ipiniko dira salgai eta Internet bidez lortu ahal izango dira www.bertsosarrerak.eus helbidean. Saioaren egunean sarrerarik geratzen

bada, txarteldegia 18:00etan zabalduko da.

Arratiarrak antolakuntzan
Udabarria Bertsotan-eko talde antolatzailean, Igor Menika Ben-goetxea Arantzazukoa eta Illart Gumuzio Igorrekoea dagoz. Gai-jartzaila taldean be badago Igor Menika, eta epaile taldean Ariane Elejabarrieta Amorrortu Lemoakoa.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketea
Bizkaiko Bertsolari Txapelketa urri bigarrenean hasiko da. Sei kanporaketa, hiru finalurreko eta finala izango ditu. Kanporaketetara 2018ko finalistak eta 2021ean finalurrekoetan kantau eben bertsolariak sartuko dira. 36 lagunek parte hartuko dabe fase horretan. Finalurrekoetan 2021ean finalista izandakoak sartuko dira. Finala abenduaren 16an izango da, Bilbao Arenan (Miribilla).



ERAKUSKETEA

Martin Ortega Muro: "Ermitiek eta baserriek antza handia daukie teilatuetan, harria landuteko moduan edo dagozan lekuei jagokienean"

Martin Ortega Muroren *Igorre ezetu* erakusketea dago Igorren aprilaren 28ra arte. Bertan, Igorreko ondarea erakusten dabezan 36 artelan dagoz. Teknika mistoa erabili dau egileak lanok egiteko: tintea, akuarelak, errotulkiak eta digitalizazinoa, hain zuzen be.

Erredakzinoa

Areatzan bizi da ilustratzailea. Igorreko Udaleko 2022 eta 2023ko egutegiak egiteko Ortega Murok egindako, herriko ondarea eta beste leku bitxi batzuk erakusten dituen 24 ilustrazio dagoz erakusketan; beste 12ak, beren-beregi erakusketarako egindakoak dira. Hor agertuten diran leku guztiak mapa baten kokatuta dagoz.

Besteak beste, bere sormen prozesuaz eta Arratian egindako arte ibilbideaz egin dau berba ilustratzaileak BEGITUguz.

Nor da Martin Ortega Muro?
Javier Ortega deitzean naz, baina hori jentek ez daki. Amak, Martin izena ipini gura eustan baina etxean ez eutsien itxi. Horregaitik, mutikotan, hori jakin izan nebanean, Martin izena erabilten hasi nintzan.

Algortara joan ginan biziten nik 7 urte nituala, han hazi nintzan, eta Algortakotzat daukat neure burua. Oin dala 6 urte etorri nintzan Areatzara biziten. Diseinu grafiko eta ilustrazinoa da nire lanbidea.

Oin dala urte batzuk, indar handia hartu dauan *urban sketch* dalakoa egiten hasi nintzan. Ikusten dozuna marraztea da hori: koaderno bat eroan eta marrazki azkar bat egitea, zagozan lekuan. Marrazki horreekaz, koaderno bat egiten da, lekua gogoratzeke, argazkiak erabili beharrean, marrazkiakaz. Modan dago eta uri askotan sortu dira marrazki taldeak: Urban sketch Vitoria, Gasteizen; Garabateando, Hondarribian, eta Dibuja todo el rato, Bilbon, esate baterako. Talde asko dagoz, jentea batu, leku bat aukeratu, eta marraztu egiten dau. Nik asko ikasi neban holan, besteakaz teknikak konpartidu egiten dira, marrazkiak konparau... Eta gero barre batzuk egin eta kaina batzuk hartuten doguz alkarregaz.

Igorreko erakusketea, 2022 eta 2023ko udal egutegietan oinarrituta dago, ezta?



Argazkia: Zazu Fotografía.

Bai. Oin dala urte batzuk, batzuek pentsau genduan turistek Igorre ezezagunena ezetuteko ibilbide bat egitea ondo egongo zala. Leku bitxiak dagoz Igorren eta Angel Larrea historialariagaz alkatu ginan. Berak esan euskun nora joan eta ze baserri ziran interesgarri. Argazkiak ateraten joan ginan eta egutegia egin genduan, eta hainbeste gustau jakun, hurrengo urtean be errepetidu genduala.

Bigarren egutegia apur bat gehiago kostau zan: hemen geratzen jakun ermita bat, han baserri bat... baina oindino dibertigarriagoa izan zan.

Marrazkietan, teknika mistoa erabili dot. Batez be akuarelea. Lekura joan eta argazki bat egiten dot, prespektibea aukeratu-ta. Hori oinarri hartuta, marrazkia tintaz egiten dot eta akuarelea erabilten dot kolorea emoteko eta errotulkiakaz ikutu batzuk emoten deusadaz marrazkiari. Gero eskaneau egiten dot.

Areatzan be zeozor antzekoa egin zenduan, ezta?
Bai. Nire andrea Zaragozakoa da eta Areatzara etorri ginanean bere familiari postalak bialdu gura geuntsezan. Eta ikusi genduan ez egoala holangorik. Orduan, Udalgaz berba egitea bururatu jatan eta bidaia koaderno bat egitea proposatu neutsen Udalekoei, argazkiakaz izan beharrean, marrazkiakaz. Idea gustau jakien eta lan zoragarria izan zan. Hiru urte behar izan genduan proiektua aurrera aterateko: hainbat historialari, hainbat ikuspuntu, hainbat

leku, marrazki piloa... Liburua 2020ko amaieran atera zan eta herriko etxe guztietan banandu zan 2021ean.

Sano polita izan zan. 100 ilustrazio baino gehiago dagoz, ze amaitutako ilustrazioakaz batera, boligrafoz azkar egindako zirriborroak be atera ziran. Gainera, Areatzako beste ilustratzaile baten laguntzea izan neban, Jon Artetxerena. Sano polita geratu zan. Gure estiloak oso desbardinak dira eta alkarrerri emoten eutsien indarra.

Lekuez gainera, beste gauza batzuk be pintetan dozuz, ezta?
Oso frikia naz eta komikia, manga... asko gustetan jataz. Digital-lean, personiakaz lan asko egiten dot, arte kontzeptuala.

Ikuspuntu artistikotik, zer topau dozu Arratiako arkitekturan?
Bixia bada be, bai ermitiek bai baserriek antza handia daukie teilatuetan, harria landuteko moduan edo dagozan lekuei jagokienean. Leku lauetan ez dagozan baserriak topatzen dozuz beti. Lehen ez eben lurra bardinduten eta toketan zan lekuari egokitzen ziran baserriak. Orduan, badagoz batzuk, eskotik-edo hasi diranak jausten eta natura leku horreetatik sartu eta baserria jaten joaten da. Ilustratzaile batentzat, berezia da oso antxinako baserriak ikustea eta detaile txikienei erreparatzea, lehiu bakotxari, naturak hartutako zatiari...

Beste baserri batzuk barritzatuta dagoz eta horreek marraztea be oso polita da.

MUSIKEA

The Electric Alley eta The Riff Truckers taldeak Igorren izango dira

Areatza Musik and Beer jaialdira Arratiako jentea erakarteko asmoz, antolakuntzeak Igorreko Kiñu Gaztetxeagaz alkarlanean, The Electric Alley eta The Riff Truckers taldeen kontzertua antolatu dau apirilaren 22rako, 21:00etan, Kiñu Gaztetxean.

Erredakzinoa

Areatzako nazinoarteko jaialdian lez, Igorreko kontzertuan be Basqueland Brewing-en garagardaoa artisaua izango da. "Basquelanden benetako estiloko artisau garagardaoa egiten dogu, osagai eta teknika onenakaz, Euskal Herriaren bihotzetik eta kontinente osorako. Astero garagardao barriak sortzean doguz. Lager garagardaoa, IPA garagardaoa edo indian pale ale, stout garagardaoa eta estilo gehiago egiten doguz. Gure garagardaoek dozenaka domina eta sari jaso dabazan arren, ezerk ez gaitu harrotzen, gure sorkuntzakaz hainbeste gozatzen dabean gure jarraitzaileen errekonozimenduak baino gehiago" dinoe garagardaogileek.

Kontzerturako sarrerak, Areatzan, Bixer, Hagina eta The Quiet Corner tabernetan; Artean, Herriko Bentan; Diman, Baltzola jattetxean; Igorren, Axular Herriko Tabernan eta Kukuman; Le moan, Atxeta tabernan; Ubiden

herriko tabernan eta Zeberion Amañe tabernan erosi daitezke. Kontzertuaren aurretik garagardao katea egingo da 19:30ean Gaztetxean eta bertan 4 garagardao mota desbardin edan ahal izango dira. Laster ipiniko ditue txartelak salgai.

The Electric Alley eta The Riff Truckers

The Electric Alley 2012ko amaieran Cadizen sortutako rock taldea da. 1970eko hamarkadako musikearen esentziari segiduz, *Backward States of Society* euren lehen albumeko abestiak sortzean hasi ziran. Albumak prensa nazionaleko kritikarik onenak izan ebazan eta 5 abestik Movistar TV ekoiztetxeko F1 kanaleko abesti-buru izatea lortu eben. Era berean, *No Control* abestia Bat Formulako Munduko Txapelketan abesti nagusia izan zan 2014 eta 2015 urteetan.

Backward States of Society, *Get Electrified!* eta *Turning Wheels* albumak ditu kalean. Igazko urte

amaieran atera eben *Apache* diskoa, euren atzena. Igaz egon ziran Areatza Musik and Beer jaialdian maiatzean.

The Riff Truckers taldea Gernikan sortu zan 2005ean. Rock and rolla, bluesa eta country-a jotzen dabe hasikeratik. 2006an hasi ziran kontzertuak emoten eta harrezkeroztik ez dira gelditu.

2008an, Durangoko Plateruena Kafe Antzokian, Memoria de Pez taldeagaz batera emondako kontzertua grabau eben DVD baten eta 2009an, *On Route* diskoa kaleratu eben. 2013an atera eben euren bigarren diskoa, *Healing the soul*. Geldialdi baten ostean, Gotzon Ereño "Gotzila" gitarra-jole barria batu zan taldera. 2018ko apirlean estudioko hirugarren lana publikau eben, *Over The Edge*. Atzenik, 2023 honetan, *Mustang* diskoa atera dabe.

Taldea hirugarrenez egongo da Arratian Areatza Musik and Beer-eko ekintza baten, lehenengoz 2019ko martian AMB jaial-

diko aurkezpenean egon zan eta arrakastea ikusita antolatzaileek eszenaleku handian joteko auke-rea emon eutseen urte horretan.

Areatza Musik and Beer 2023 jaialdiko kartela osotuten

Eric Steckel estatubatuarra, La Perra Blanco cadiztarra, Edgar Blues Trio talde kataluniarra eta Henrik Freischlader alemaniarra dira momentuz, bagilaren 2 eta 3an Areatzan egongo dirala antolakuntzeak jakinarazotako bandak.

Eric Steckel Pennsylvaniatik etorriko da, La Perra Blanco La Linea de la Concepcionetik, Edgar Blues Trio Bartzelonatik eta Henrik Freischlader Alemaniatik. Bre- tainia, Suiza, Madrid edo Bizkaiko taldeak be egongo dira, baina ez dabez oindino jakitera emon.

Aurten gainera plazako karpeaz gainera zapatuan beste karpa bi be egongo dira errekearen alde bietara. Batean janari postuak izango dira eta bestean musika kontzertuak egongo dira.



MUSIKEA

Gontzal Mendibilek kontzertua emongo dau Zeberion

Erredakzinoa

Apirilaren 14an izango da, 20:00etan, Ermitabarriko San Antonion. Gontzal Mendibilek, Luis Baraiazarrak euskeratu eta berak musikatutako San Joan Gurutze-koaren poemak kantauko ditu. Ez da bakarrik egongo agertokian, musikarien eta abesbatzaren laguntza izango dau-ta Zeanuriko kantautoreak. Abesbatza, Ugaoko Sarea Abesbatza izango da, Jose Angel Roblesen zuzendaritza-pean. Musikariak barriz, Ainhoa Tabuyo (bigarren ahotsa), Angel Unzu (gitarra eta buzukia) eta Iñaki Dieguez (akordeoia) dira.

"Neugan bizi gabe biziz"

Luis Baraiazarrak euskeratu eba- zan XVI. mendeko Juan de Yepes (San Joan Gurutzekoa) espainiar fraide eta poeta handienetakoaren poemak, jatorrizko bersinoak di- tuan metrika eta errimen konbina- zino berberagaz. Gontzal Mendibi- lek poemok musikatu eta CD bat atera eban 2021ean. Harrezke- roztik zuzeneko kontzertuak emon ditu, Euskal Herrian eta Euskal He- rritik kanpo, jotzen dauan lekua- ren inguruko abesbatzak lagunduta.

DUNBA

Martiaren 8a

Dimako eskolan martiaren 8a ospatu genduan eta ekintza asko egin genduzan egunean zehar.

Dimako Ugarana ikastetxeko LH 6. mailako ikasleak

Goizean goiz irrati saio berezia izan genduan andren nazinoar- teko egunari buruz. Irrati saioan Andraizeak-eko ordezkari bik har- tu eben parte, Edurnek eta Ma- ribelek, eta hausnarketa egitera bultzatu ginduzan. Zaintza ardu- rei buruz egin euskuen berba eta andrazkoek gizonetakoek baino zaintza ardura gehiago daukie- zala adierazo euskuen. Zaintza arduretara bideratutako lan bai- menen datuak emon euskuezan eta harrituta geratu ginan alde handia dagoalako gizonetakoek eta andrazkoen artean.

Honen ostean eskolako ikasle guztiok batu ginan *Konplize di- tut eta* abestia abesteko. Abesti honen bitartez eskolako ikasle guztiok bardintasunaren alde ga- gozala erakutsi gura izan genduan. Eskolako maila bakotxak abestiko paragrafo bat abestu eban eta momentua hunkigarria izan zan.

Egunean zehar guztion artean, eskola ondoko Andren parkean dagozan zugatzak apaintzeko tela sortu genduan. Telea koloretsua izan zan, kolore morea nagusi izanik, forma desbardinez osotua aniztasunari erreferentzia eginaz. Ikasle bakotxak korapilo bana emon geuntsan, korapilo askoz tela handi bat sortuz.

Arrastian, eskolea eta gero, herri mailako ekintzetan be hartu gen- duan parte. 17:00etan parkera hurreratu ginan zugatzei sortutako telak jartzera beste alkar- te batzuek batera. Zugatz bakotxari jagokon telea jarritz, parkea oso dotore eta koloretsu geratu zan, zabaldu gura izan genduan mezua argi geratuz.

Ondoren, *Konplize ditut eta* fa- miliakaz batera abestu genduan



Dimako musika eskolako musika- rien eta abeslarien laguntzeagaz. Oingo honetan guztiok abesti osoa abestu genduan eta eskolan besteko hunkigarria izan zan.

Herriko konzentrazioan par- te hartu genduan eta jente asko hurreratu zan bertara. Andraizeak prestatutako testua entzun ondoren Igorreko manifestaldira joan ginan.

Eguna amaitzeko, eguneko ekin- tzetan zehar ateratako ondorioak



etxeokaz partekatu genduzan eta eurakaz be hausnarketa egin gen- duan zaintza ardurei buruz, etxeko zereginei buruz, sensibilizazioari buruz... Etxean bildutako hausnarke- ta eta ondorioak gelara ekarri gen- duzan eta debatea egin genduan honen guztionen ingurukoa.

Martiaren 8a ospatu arren, egunero andren eskubideakaitik eta bardintasunagaitik burrukatu behar dogula uste dogu. Dimako eskolako ikasleok hainbat urte daroaguz bardintasuna lantzean, urtero ekintza desbardinak egi- ten eta egunerokotasunean sort- zean diran egoera desbardinei buruz hausnarketea egiten. Gora emakumeak! Guztion artean bar- dintasuna lortuko dogu!

AGENDEA

APRILAK 3
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Guraso Elkarteak maiatzaren 26an egingo dauan Merkatu Txikian saltzeako objektuak (liburuak, jostailuak, umeentzako gauzak...) bilduko dauz. Eskolako tejobanako txokoan itxi daitezke 09:30etik 09:45era.

Udabarri osoan, Gorbeia parkeko "Bide bazterrak, zelaiak eta basoak zain ditzagun!" baimendutako aparkalekuetatik kanpo ez aparketako konzientziarazino kanpainea.

Hilaren 16ra arte, euskal mendizaletasunaren inguruko *Mendian gora* erakusketea Parketxean. Emmoa Fundazioaren eskutik.

Apirilaren 6an izango dan bidaiakoadernoak egiteko hasikerako mailako tailerrera izen-emotea 617 332 691 telefonoan edo *martin@estudioduende.com* helbidean.

Umeentzako Udabarriko ekintzak, 3 eta 11 urte bitartekoentzat, Zaztaparrak Asti Taldearen eskutik. Jolas eguna.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Apirilaren 15ean Igorren egingo dan Xavier Uriarteren osasun neurologikoa eta txertoen gaineko tailerrean izena emon daiteke *askebizarratien@gmail.com* helbidean. Prezioa 20 euro.

Areatza Musik and Beer Bertatik bertara Igorren. Hilaren 22ko The Riff Truckers eta The Electric Alley taldeen kontzerturako sarrerak salgai, Areatzako Bixer, Hagina eta The Quiet Corner

tabernetan; Arteako Herriko Bentan; Dimako Baltzola jatetxean; Igorreko Axular Herriko Tabernan eta Kukuman; Lemoako Atxeta tabernan; Ubideko herriko tabernan eta Zeberioako Amañe tabernan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserbea egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela (giltza) personalizaua egongo da eta liburutegian jasoko da.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera, liburutegia zabalik.

Hilaren 14ra arte, garagarrilean izango diran udalekuetarako izena emoteko epea *kultura.dima@bizkaia.org* helbidean. Udaleku irekiak, 2018-2010 urteetan jaiotakoentzat, 1. txandea, garagarriaren 3tik 7ra, bigarren txandea 10etik 14ra. Prezioa 43 euro asteko/umeko, neba-arrebek 39 euro asteko/umeko. Udaleku itxiak Gorbeian, 2015-2011 jaiotakoentzat, 1. txandea garagarriaren 3tik 7ra eta bigarrena, 10etik 14ra; 2006-2010 urteetan jaiotakoentzat 3. txandea garagarriaren 17tik 21era. Prezioa 200 euro asteko/umeko; neba-arrebek 180 euro asteko/umeko. Izena emoterakoan, prezioaren erdia ordaindu behar da.

IGORRE

Bonodenda kanpainea martxan.

Apirilaren 28ra arte, *Igorre ezetu* erakusketea Kultur Etxean.

09:30etik 14:00etara, CD Arratiak antolatutako futbol kanpua, 2011 eta 2018 urte bitartean jaiotakoentzat. Futbol zelaian.

09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura

liburutegia zabalik. Mailegu zerbitzua, arrastiz astelehenetik eguenera eta goizez barikuetan eta umeen jai eta opor sasoiari.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

LEMOA

Udal ortu ekologikoa erabilteko izena emon daiteke apirilaren 14ra arte, *lemoa.net* webgunean.

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Hilaren 5era arte, Ludotekan 11:00etatik 14:00etara, udabarriko jarduerak HH3 eta LH2 bitartekoentzat, Skate parkera, Urdaibaitik itsasontzian buelte, Lemoako auzoak ezetutera...

Hilaren 5era arte, Kiroldegian, 10:00etatik 13:00etara, LH3 eta LH6 bitartekoentzat "Konkis txikia".

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Gorbeia Suzien 21 kilometroko lasterketan izen-emotea dorsalak amaitu arte *gorbeiasuzien.eus* webgunean.

Hilaren 16ra arte, Gorbeia Jubilatu eta Pentsiodunen alkarteak apirilaren 20rako antolatutako Briones-Rodezno-Haro txangorako izen-emotea Jubiladuen Tabernan.

ZEBERIO

Apirilaren 11tik 14ra, 2016tik aurrera jaiotakoentzat egingo dan Aste Santuko kanpusean parte hartzeako izen-emotea 666 025 389 (Aitor). Kanpua 09:00etatik 14:00etara izango da eta 50 euroko prezioa dauka. Frontoiko kirolak, sensibilizazioa, eskulanak frontoiko jolasetarako, talde

lana eta psikomotrizitatea eta beste jolas batzuk egingo dira bertan.

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

APRILAK 4
AREATZA

Umeentzako Udabarriko ekintzak, 3 eta 11 urte bitartekoentzat, Zaztaparrak Asti Taldearen eskutik. Altxorren jolasa ludotekan.

IGORRE

09:30etik 14:00etara, CD Arratiak antolatutako futbol kanpua, 2011 eta 2018 urte bitartean jaiotakoentzat. Futbol zelaian.

ZEANURI

16:00etan, LH1 eta LH6 bitarteko umeentzako urtekerea, Gasteizko City Jump-era, autobus galekuan. Eroan beharrekoak: labankorrek ez diran galtzerdiak azpian silikonadun puntodunak, meriendea edo jateko zeozer.

APRILAK 5
AREATZA

Umeentzako Udabarriko ekintzak, 3 eta 11 urte bitartekoentzat, Zaztaparrak Asti Taldearen eskutik. Urtekerea.

IGORRE

09:30etik 14:00etara, CD Arratiak antolatutako futbol kanpua, 2011 eta 2018 urte bitartean jaiotakoentzat. Futbol zelaian.

APRILAK 6
AREATZA

11:00etatik 14:30era, bidaiakoadernoak egiteko hasikerako mailako tailerra Martin Muroren eskutik Areatzan zehar.

DIMA

17:00etan, Bakearen lore gara. Dimako bonbardaketaren 86. urteurrena dala-ta, ermitetan kanpaikadak.

APRILAK 7
DIMA

11:00etan, bisita gidatua Antzasti musean.

APRILAK 10
LEMOA

Apirilaren 13ra arte, Udabarriko oporraldia Gaztelekuan, 16:00etatik 21:00etara, urtekerak 09:00etatik 19:00etara 12 eta 16 urte bitartekoentzat. Zumaia-Zarautz kostako ibilbidea; sexualidade tailerra; Tirolina Areatzako Gaztelekuagaz; Masterchef taldekako lehiaketak.

APRILAK 11
AREATZA

Umeentzako Udabarriko ekintzak, 3 eta 11 urte bitartekoentzat, Zaztaparrak Asti Taldearen eskutik. Gupil eguna ludotekan.

ZEBERIO

09:00etatik 14:00etara, Pelota kanpua. Frontoiko kirolak, sensibilizazioa, eskulanak frontoiko jolasetarako, talde lan eta psikomotrizitatea eta beste jolas batzuk frontoian.

11:00etatik 13:00etara, txakurrak amorraren aurka txertatzea. Arkulanda

auzoan.

APRILAK 12
AREATZA

Umeentzako Udabarriko ekintzak, 3 eta 11 urte bitartekoentzat, Zaztaparrak Asti Taldearen eskutik. Kontruzio eguna ludotekan.

ZEANURI

15:15ean, DBH1 eta DBH4 artekoentzako Sopuerta abenturara urtekerea autobus galekuan.

ZEBERIO

09:00etatik 14:00etara, Pelota kanpua. Frontoiko kirolak, sensibilizazioa, eskulanak frontoiko jolasetarako, talde lan eta psikomotrizitatea eta beste jolas batzuk frontoian.

19:00etatik 21:00etara, andrei zuzendutako *Autozaintza emozionala* ikastaroa eskola zaharrean.

APRILAK 13
AREATZA

Umeentzako Udabarriko ekintzak, 3 eta 11 urte bitartekoentzat, Zaztaparrak Asti Taldearen eskutik. Areatzako Parketxera.

ZEBERIO

09:00etatik 14:00etara, Pelota kanpua. Frontoiko kirolak, sensibilizazioa, eskulanak frontoiko jolasetarako, talde lan eta psikomotrizitatea eta beste jolas batzuk frontoian.

11:00etatik 13:00etara, txakurrak amorraren aurka txertatzea. Ermitabarrin, frontoian.

APRILAK 14
AREATZA

Umeentzako Udabarriko ekintzak, 3 eta 11 urte bitartekoentzat, Zaztaparrak Asti Taldearen eskutik. Eskulanak ludotekan.

ZEBERIO

09:00etatik 14:00etara, Pelota kanpua. Frontoiko kirolak, sensibilizazioa, eskulanak frontoiko jolasetarako, talde lan eta psikomotrizitatea eta beste jolas batzuk frontoian.

20:00etan, Gontzal Mendibilen kontzertua San Joan Gurutzekoren poema musikatuak Ugaoko Sarea Abesbatzagaz Ermitabarriko San Antonion.

APRILAK 15
ARANTZAZU

10:00etatik 14:00etara, Xavier Uriarteren osasun neurologikoa eta txertoen gaineko berbaldi-tailerra Kultur Gunean.

AREATZA

20:00etan, Biscuit Blues Duoren kontzertua The Quiet Corner tabernan. Chicagoko blues kontzertua Carlos Carranza eta Carlos Joverregaz.

APRILAK 16
IGORRE

17:00etan, zinea *Momiak*; 19:30ean, *Mari(dos)* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

10:00etatik aurrera, Gorbeialdeko Merkatu txikia; 13:00etan, The Half Nelson taldearen kontzertua.



Sobietar osteko Armenian girotutako filma
dakar Igorreko Zineklubak

Hiner Saleem, Armeniako zuzendariaren *Vodka Lemon* pelikulea ikusteko aukerea egongo da apirilaren 13an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan. Bizitzaren zentzubakotasunaren aurrean, maitasuna eta artea, vodka tragoxka baten modukoak dirala defendiduten dau 2003ko Armenia, Frantzia, Italia eta Suitzaren arteko koproduzino honek.

Sinopsia

Kaukasoko herrixka kurduetan gagoz, sobietar osteko Armenia suntsituan. Hamo 60 urteko alargun bat da, armada gorritik erretirautako ofizial bat. Bere ondasun bakarrak armairu zahar bat, telebista errusiarra eta uniforme militarra dira, eta hilean 7 dolarreko pensinoa jasoten dau. Egutero, hilerriraino joaten da Hamo, eta emaztearen hilobiaren erretratutik edurra kentzean dau. Apurtxo bat urrunago, Nina 50 urteko alargun erakargarriak senarraren hilobitik edurra kentzean dau. Herrixketara itzultzen dan autobusean, esertzen dira hiru ilaretako tartea itxiz. Hamo Ninari begira dago. Nina be Hamori begira. Paisaia guztiz zuria da, mendietako harriak izan ezik. Hamo herrira itzuli danean, Parisen bizi dan semearen gutun bat aurkitu dau.



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA

Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

FURGONETEA SALTZEAN DOT

1998 urteko Peugeot Boxer furgonetea, egoera onean, saltzean dot. Interesdunek deitu telefono honetara: 688 638 906.

MOBIKORTASUN MURRIZTUA DABENENTZAT MOTORRA SALGAI

Mobikortasun murriztua edo desgaitasuna daben personentzako motorra. Libercar Urban Scooter elektrikoa. Bateria barria 2022an ipinita. Ez da erabilten 2022ko bagilatik. Interesdunek deitu 676 936 010 telefonora.

TXAKURRAK OPARITUTEN DODAZ

Ama mastina da eta aita border collie-a. Hiru hilebete daukiez. Interesdunek deitu 657 724 435 telefonora.

LANA

GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketarako egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztebixean. Interesdunek deitu 664 303 528.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrik emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Interesdunek 629 461 077 telefonora deitu.

PSIKOLOGIA ZENTROA ESKUALDATZEN DA

Igorreko San Juan auzunean, baimen guztiak eta jardun betean. Interesdunek deitu 600 634 272 (Sagrario) telefonora.

Zeozor saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Mari(dos)** filmarako.

Ziortza Lekue (Igorre)
Garikoitz Etxebarria (Igorre)



2 Kiñu Gaztebixean eta Areatza Musik and Brewing alkarteak antolatutako apirilaren 22ko kontzerturako sarrera bi.

Urtzi Barrenetxea (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAk:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
ZUZENBIDE
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tlf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
☎: 94-673-70-87
☎: 609-79-40-54

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN
Informazioa: 649 979 115
eta inigoirua@begitu.eus



IGORRE E·Z·E·T·U

ERAKUSKETEA

2023-03-24tik 2023-04-28ra
IGORREKO KULTUR ETXEAN



KRISTONAK

“AHOBEtEhORTZ” biniloa!!!



elkar
www.elkarargitaletxea.eus
(+34) 618 94 79 54